

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Aralar taldearen legebiltzarkide Mikel Basabe Kortabarriak**, indarrean den Erregelamenduaren babesean, Euskal Talde Popular taldeak “Chillida-Leku museoaren egoerari buruz” aurkeztu duen legez besteko proposamenari hurrengo **OSOKO ZUZENKETA** egiten dio (09\11\02\01\0458)

### **OSOKO ZUZENKETA**

- 1.- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalegina egin dezala, Chillida-Leku fundazioarekin Chillida-Leku Museoaren bideragarritasuna ziurtatuko duen hitzarmena lortzeko. Bideragarritasun hitzarmen horrek diru publikoa erabiltzea eskatuz gero, Eusko Jaurlaritzak fundazioaren ondasunen jabe goan eta fundazioaren gestioan parte izango du.
- 2.- Era berean, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio elkarte, erakunde zein fundazio pribaturen baten ondarea zaharberritzeko edo babesteko diru publikoa erabiltzen denean, Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sina dezala dagokion elkarte, erakunde zein fundazio pribatuarekin, diru publikoaren laguntzarekin zaharberrituriko nahiz babesturiko ondasunaren jabe goan Eusko Jaurlaritzak parte izan dezan.

**Gasteizen, 2010eko abenduaren 27an**

**Mikel Basabe Kortabarria**  
**Aralar taldeko legebiltzarkidea**